

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzuan, euskarazko erdi mailako teknikari lanpostua oposizio bidez betetzeko, gehienez 11 plazarekin.

(Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren maiatzaren 20ko 1969/2024 Ebazpenaren bidez onartua eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2024ko ekainaren 20ko 127 zenbakian).

EPAIMAHAIAREN OHARRA

2024ko abenduaren 23an, astelehenean, **09:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko [ikasgelategian](#) (Iruñeko Arrosadia campusa) oposizioaren lehenengo proba egiteko deia egiten zaie hautagaiei.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute.

Boligrafoa eraman behar da, tinta urdin edo beltzekoa, punta lodiarekin.

Probaren **lehen ariketa 09:00etan** hasiko da, **012 GELAN**, eraikin horren beheko solairuan. (15 minutu lehenago aurkeztea gomendatzen da)

Ariketak **BI** orduko iraupena izango du.

Probaren **bigarren ariketa 12:30ean** hasiko da, **015 GELAN**, aipatutako eraikinaren beheko solairuan.

Ariketak **ordu eta erdiko** iraupena izango du.

Jakinarazten da proba egitean ezingo dela testurik edo dokumentaziorik kontsultatu, ezta hiztegirik, kalkulagailurik, gailu elektronikorik edo bestelako materialik erabili ere. Ezin izango da belarri-tapoirik erabili.

Telefono mugikorrek eta erloju adimendunak itzali egin beharko dira proba osoan zehar, eta gordeta egon beharko dute. Inola ere ezin izango dira mahai gainean egon, ezta inola ere erabili ere.

Gainerako eskumuturreko erlojuak mahai gainean utzi beharko dira, NANarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin batera.

Une oro beteko dira Epaimahaiak ezartzen dituen oharra.
Iruñea, data digitalaren egunekoan.

Epaimahaiko idazkaria

Javier Fernández Anaut

Nafarroako Atariaren webgunean argitaratzeko (www.navarra.es).